

# noaia

## KALEZARKO SAN JUAN SUA EZ DA PUNTAPAXEN EGINGO. HAUR PARKEAREN ONDOKO BELARDI BATEAN PIZTUKO DUTE AURTEN

Puntapaxetik Kalezarrera igotzeko eskaileraren ondoan dago belardia / 16



ARGAZKIA: NOAUA

**Santixabelei begira,  
sexu erasoen  
aurkako protokoloa  
adostu dute** / 13

**Alex Udabe  
arraunlaria:  
"Erretiroa hartzea  
erabaki dut"** / 14

**Pagazpe pilota  
taldeko Alejo  
anaiak, Gipuzkoako  
txapeldunak** / 16



**JAIETAKO GEHIGARRIA**

# HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

## Matrikula epea

(ekainaren 19tik 29ra eta Irailaren 1etatik 15era)  
(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08 )

### •HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.  
Hiritartasun digitalerako Informatika.

Kalkuluan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko  
joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak.  
Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta  
historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **OINARRIZKO EUSKARA**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08



**USURBIL**  
O P T I K A

**4** Urteko  
Garantia


Interes  
Gabeko  
Finantzaketa

\*Banketxeak  
onartzean

Entzumen  
azterketa  
**DOAN**

Entzun  
telebista

eta mugikorra  
zure audifonoetan



**PILARIK  
GABEKO**

TEKNOLOGIARIK  
AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)

# TXIRIBOGA

Ondo pasa  
Santixabeletan!

TABERNA

**SANTIXABEL FESTETAN:**

(Ostiral gauetik astelehen eguerdira)

**MENU BEREZIAK AUKERAN:**

43€

45€

47€

943 21 88 40

IRAZU KALEA 6, USURBIL

# noqua


jarraitu gure sare sozialak

facebook

Instagram

twitter

noqua



[www.noqua.eus](http://www.noqua.eus)

# "Aurtengo San Juan sua ez da Pikaolan egingo"

Urteetan San Juan suaren kokagunea izan da Kalezarren. Jai Batzordeak tokiz aldatzea erabaki berri du.

Pikaola ondoan etxe berriak egin dituzte eta San Juan suaren kearekin bizilagunak ez molestatzearren hartu da erabakia. Puntapaxetik Kalezarra igotzeko eskaileren ondoko belardi batean piztuko dute aurtengo sua.

"Sua Kalezarko parkearen azpian dagoen belardian egingo da, Puntapaxetik Kalezarra igotzeko eskaileren amaieran, ezkerreko aldean. 22:00etan emango zaio hasiera suari, trikitilari eta bertsolarietara girona. Animatu".



Sua Kalezarko belardi honetan piztuko dute. Ostiralean, gaueko 22:00etan.

## Garbigune mugikorra Santuenean

Ekainaren 22tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da astebetetz. Etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea du xede. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe.

Ekainaren 29 osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

## Furgobaratza Agerreazpiko udal baratzeen parkean

Ekainaren 29an ostegunarekin itzuliko da Furgobaratza Agerreazpiko udal baratze parke. "Gaixotasun eta izurriak" hizpide dituen tailerra eskainiko dute doan, arratsaldeko 18:00etan hasi eta 19:30ak bitartean Agerreazpiko udal baratzeen parkean, herriko orentzat.

## Artzabal izango da Jakin Jardunaldien topagune

"Gizarte mugimenduak: erronka berriei elkargune berriak" Jakin Jardunaldia ekainaren 22an eta 23an egingo dute Artzabalen.

UEUren 51. udako ikastaroen baitako jardunaldi honetako matrikulazio epea itxita dago. Informazio gehiago, ueu.eus atarian.

## 22 udal lanpostuetako behin betiko zerrendak

Udalak 26 lanpostuko lan eskaintza publikoa egin zuen iazko urte amaieran. Haietatik 22 plaza hornitzeko "hautaketa-prozesuan onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak ekainaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean daude ikusgai, udaleko iragarri taulan eta usurbil.eus atarian.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

## Shakira ez dator Santixabeletara

**B**arrakatan euskaraz egitasmoaren berri iritsi zitzaidan orain dela gutxi whatsapppeko mezu batean, spotify-ko bi zerrenda erabiltzeko gonbidapenarekin. Lehenengo haurrentzako euskarazko musika zerrenda luze bat da, 447 abestirekin eta 1.301 "atsegin dut" jaso dituena orain arte; bigarren zerrendak gazte eta helduentzako euskarazko 1.000 abesti ditu eta 1.388 lagunek dute gustuko.

Afade eta Alkarbide elkarteek bultzatutako egitasmoa da eta barrakak euskalduntzeko saiakera berri bat da. Afade Euskadiko Ferialarien Elkartea da eta Alkarbide Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilgunea. Aspalditik ari dira elkarlanean barrakak euskalduntzeko ekimenak aurrera eramanez.

2011n egin zuten lehen lankidetzaz hitzarmena jai-esparruetan euskara sustatzeko EUDELekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera. Ondorioz, Alkarbidek Afaderi barrakatan jartzeko kartel ereduak eta musika-bildumak prestatzen dizkio, eta udalei ere banatzen diete jaietan egoki ikusten duten zabalkundea egin dezaten. Horrez gain, Afaderi aholkularitza eta laguntza ematen dizkio eta hitzarmenaren bitartez neurri hauek finkatu eta babestu egiten dira.



Euskarazko musika taldeak "txosnetatik barraketara ere eraman daitezke". NOAUA

Esango nuke Usurbilen ere Udalak horrelako neurriak hartu izan dituela; kartelak eta prezioak euskaraz jartzea, euskarazko musika jartzeko eskatzea eta abar.

Urte guztian ikastolan, eskolaz kanpoko ekintzetan, Udajolasen eta abar euskaraz bizitzen bagara, koherentzia mantenduz, barrakatan ere euskarazko kartelak irakurtzea eta euskarazko musika entzutea lehenestea funtsezkoa da. Eta baita fitxak euskaraz eskatzea ere, ferietako saleroslea euskaraz erantzuteko gai izan baitaiteke, zergatik ez.

**"PIRIBIRI SOINUAREKIN BATERA ZERGATIK ENTZUN BEHAR DUGU HALABEHARREZ SHAKIRA?"**

Aisialdiko eremu erakargarria da barraketakoa, eta piribiri-piribiri soinuarekin batera zergatik entzun behar ditugu halabeharrez Shakira edo Bad Bunny? Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Ene kantak txokolatadan entzun daitezke, baina baita barrakatan ere. Gozategi, Gatibu eta Esne Beltza txosnetatik barraketara ere eraman daitezke. Ferietako salerosleak, udala eta herritarrak prest egonez gero, ez dago aitzakiarik. 447 eta 1.000 abestietako zerrendetan denetarik dago, bazkal ondorenerako zein ordu txikiatarako moduko abestiak.

Aukera faltagatik ez da izango eta bilatzen zailak direlako ere ez, Spotify-n oso modu eskuragarrian jarriak baitaude: barrakatan euskaraz haurrak eta barrakatan euskaraz gazteak eta helduak.

### Bigarren eskuko testuliburuaren azoka Oriarte institutuan

Liburuak ekainaren 23an eraman behar dira eta azoka ekainaren 26an egingo da, Oriarteren Larrekoetxe erai-kinean.

#### Mailak:

- DBH3-2. Batxillergoa.

#### Egutegia:

- Liburuak eramateko eguna: ekainak 23 ostirala, 16:00/18:00.
- Liburuak erosteko eguna: ekainak 26 astelehena, 16:00/18:00.
- Dirua jasotzeko eguna: ekainak 27, 16:00/17:30.

#### Oharrak:

- Oriartekide Guraso Elkarteko bazkideek liburu azokan lehen-tasuna edukiko dute. Bazkide ez direnek, 17:30etik 18:00era-ko ordutegian.

### Uztailean goizez zabalduko dute KzGunea

Ekainaren 30era arte, 16:00-20:00 artean irekiko dute KzGunea. Uztailetik aurrera ordea, goizez, 9:00-13:00 artean. Hemen datozen ikastaroen berri:

- Uztailak 4-5, 9:00-11:00 "Online izapideak Osakidetzarekin".
- Uztailak 6-7, 9:00-11:00 "WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean".
- Uztailak 10-11, 9:00-11:00 "Argazkiei ukituak eman zure Smartphonearekin".
- Uztailak 12-13, 9:00-11:00 "Editatu bideoak zure Smartphonearekin".
- Uztailak 14-28, 9:00-11:00 "Google Aplikazioak zure Smartphonean".

Informazio gehiago, hemen: Kale Nagusia, 37  
943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net

## IKA-MIKA

**Ieup Agurtzane eta talde osoari****ORKATZ**

Bigarren alkatetzari ekin dion. Aurrekoari begira hau irakurri dinat: "Atzera begira jarrita, esango nuke azkar eta bizi joan dela lau urteko epealdia; eta, batez ere, intentsitate handiz joan dela, legealdi guztietan izaten da zerbait nabarmentzen dena; geurean, pandemia bat eta gerra bat, alajaina! Erraz esaten da".

Hitz horiek irakurtzean, gogortasunaren mamia "zuku" atera nahian jarri naizenean, berehala konturatu naun, zeinen azkar ahazturaren mugetan jartzeko joera izaten dugun. Agian, joera horren arrazoietako bat, bizitzak aurrera egin beharra eta egunerokoari eutsi eta erantzutean egongo den. Dena den, hire hitzak, ez ditun zokoratzeak.

Udalean zenezkatzen baliabide apurrak herritarren eskura jarri, eta beraiekin partekatuz, zuen lana, erantzun egokiena ematea izan den, eta herritarrok, lan hori ikusi dugula esatea, ez den gehiegikeria bat. Lerrotxo hauen helburua, herritar bezala, esker onaren atalean, aletxo bat jartzea besterik ez den.

Datorrenari begira, atera duzuen txosteneko 90 neurri horietako bakoitzak bere garrantzia daukala garbi zagon. Nik, atal bat hartu eta hiri behin baino gehiagotan entzundako migrante hitzaz lerro batzuk itsatsi nahi dizkinat. Etxean bizi duenari, nere ahaidetasunezko errespetua besterik ez zaidan bururaten. Txostenean, oinarriko 4 zenbakian, "guretzat herri honetan bizitzea erabaki duen pertsona oro da euskal herritarra, edonon jaioa dela ere. Euskal herritar guztiok ditugu eskubide eta betebeharrak. Pertsona guztiak eskubide guztiak eta aukera berdintasuna aldarrikatzen ditugu". Herri askotatik etorritako pertsonak herrikide ditugula jakinik, aipatutako esaldiak, gardentasunez betetzen din, nahia eta helburua.

Alkatetzako ekitaldi honetan, Euskal Herriko mendia eta itsasoa lotu nahian, herrian jaio dena eta migrantea elkartu, adarra eta maskorra eskuetan, doinua atera eta aretoa bete duten herritarrekin, antzinako ohiturak gaurkotuz edo, ekitaldiari ongiatorria ematean izan den nahia. Hego Euskal Herriko udalak osatu diren egunean,

ezagutzen dizkinagu migrante hitza barruan eraman, EH Bildu zerrenda osatu eta euskal herritarren onurarako lanean ari diren eta jardungo duten euskaldunak. Bejondeizuela guztio!

Herri askotako udaletxeko alkatetza bastoi baten bidez irudikatzen den. Usurbilen, zumezko uztaiak irudikatzen din. Benetan –besteei ezer kendu gabe– irudikatze aparta dela esago niken. "Apatasunez baina sendo, malgutasunez baina tinko".

Azken lerro hauetan ezin dinat aipatu gabe utzi. Elkar ulertzeko (oraingoan idatziz), hizkuntza erabiltzen dinagu, eta ahoskatuz edo idatziz euskaraz egiten dugunean, orain hilabete gutxi jaso genuen aurkikuntza zoragarria zihoan nere oroimena. Nafarroako Irulegiko eskuaren oihartzuna mundu osora (Etxepare gogoan) zabaldu denean, euskarak mendeetan jaso dituen (eta jasotzen ari den) eraso eta basakeria guztiak gainditu, eta XXI. mendean Euskal Herrian dugunez, euskaldunontzat ohore izanik, hitz egiten eta idazten jarraitu dezagun bere lurraldean. Segi horrela, eutsi goiari eta ZORIONEKU izaten jarrai dezagun.

**Udako ordutegiak Sutegin eta Euskotren-en****Euskotren**

Euskotrenek indarrean du udako ordutegia aste hasieratik. Urtero moduan, Zumai-Donostia arteko zerbitzuak indartuko dituzte larunbat, igande eta jai egunetan; kasutan, 13:50-20:50 artean ordu erdiro izango da tren zerbitzua Donostia aldera eta 15:00-22:30 artean Orio aldera.

Informazio gehiagorako: euskotren.eus  
944 333 333.

**Sutegi udal liburutegia**

Ekainaren 26tik aurrera, goizez irekiko dute astelehenetik ostiralera, 9:30-14:00 artean. Ekainaren 26an bertan eta uztailera artean, 17:00-19:00 artean. Larunbatetan itxita egongo da.

**Aurrerago, Oiardo eta bus-taxi zerbitzua**

Uztailera sartzearrekin batera, Oiardo Kiroldegiak edota bus-taxiak ere udako ordutegia izango dute indarrean.

**Bi udal dirulaguntzen ebazpenak**

Usurbilgo Udalak bi dirulaguntza deialdiei lotutako ebazpenak argitaratu ditu egunotan.

Batetik, 2023ko kultur sorkuntzarako egitasmoak garatzeko dirulaguntzari loturikoa, ekainaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jasoa (GAO). Guztira lau eskaera onartu dituzte. 8.322,26 euro banatzea ebatzi du Udalak.

Bestetik, 2023ko norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntza deialdiaren ingurukoa. Eskaera bakarra aurkeztu zen eta ez da onartutzat jo.

**Hurbilago ostalari elkarteari****UDARREGI IKASTOLAKO ARTEZKARITZA KONTSEILUA**

Zorte handia dugu Udarregi ikastolakook

zuek bezalako sukaltalde bat Usurbilen izateagatik. Baikortasuna eta beti aurrera! izaten da sentiarazten diguzuen. Kexak ez du zuen artean tokirik. Aupa

zuek eta mila mila esker bihotzez lana hainbeste errazteagatik, zerbitzuagatik, duzuen umoreagatik eta egin duzuen lan guztiagatik. Kalitatea hauxe da!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

# Legealdi berriari ekiteko prest

Aurreikusit moduan, ezustekorik gabe, ekainaren 17an eratu zuten maiatzaren 28ko udal hauteskundeetatik sortu den datozen lau urteotarako udalbatza eta bide beretik hautatu zuten alkatea ere; Agurtzane Solaberrieta Mesa.



Datozen lau urteotarako osatu duten udalbatzako kideak. NOAUA

Ezustekorik gabe joan zen udal-letxeko aretoa bete zuen ekitaldia. Bi zati argi izan zituen ekainaren 17ko hitzorduak; lehenengoan, aipatu moduan udalbatza berria osatzeko egin beharreko prozedura bete zuten.

Halakoetan ohi denez, adin mahaia izendatu zuten, zinegotzi helduenarekin eta gazteenarekin; kasu honetan, biak ala biak EHBilduko ordezkariak ziren, Joxe Mari Lizaso Azkonobieta eta Xabat Beloki Segurola hurrenez hurren. Segidan, eskualdeko hauteskunde batzordetik jasotako zinegotzien kredentzialak irakurri zituen, idazkari lanak egitea egokitu zitzaion Ibon Goikoetxea udal ingurumen teknikariak.

Kargu hartzeen unea heldu zen orduan, zin egiteko momentua. Hauteskunderi lotutako araudiak dienez, "Konstituzioari zin egin behar zaiola esaten du eta ezinbesteko baldintza da kargua hartzeko. Hori egin ezean, ezingo lukete kargua hartu eta alkatearen hautapean parte hartu ere ez".

## Zin egitea, "legeak hala behartuta"

Ia denek, PSE-EEko udal ordezkariak izan ezik "legeak hala behartuta" zin egin edo "hitza eman" zuten. Baina une horretan izan zen esaldi horri hitz gehiago erantsi zion. "Legeak hala behartuta hitza ematen dut, gobernantza demokrati-boan sakontzen lan egingo

dudala", adierazi zuen EHBilduko zinegotzi Ainhoa Arrozpide Landak. Alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak, aldiz, "legeak hala aginduta, zin egiten dut Usurbil hobeago baten alde eta euskal errepublikaren alde arituko naizela". EAJ-PNV-ko zinegotzietako batek, aurreko bi legealdietan bozera-maile lanak egin dituen Josune Urkola Larrartek ezin izan zuen udalbatzaren eraketan egon.

## AGURTZANE SOLABERRIETA: "HERRITIK ETA HERRIARENTZAT ARITUKO NAIZ"

Honenbestez, hurrengo osoko bilkuran hartuko du zinegotzi kargua. Gainerakoek zin egin ostean, adin mahaiko lehen-dakari Joxe Mari Lizasok "Udala eratua dago" adieraziz, osatu eta onartuzat jo zuten 2027. urtera arteko Usurbilgo udalbatza berria.

## Gehiago osoz hautatua

Alkatea hautatzeko unea heldu zen segidan. Idazkariak azaldu zuen moduan, "zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke alkategai". Azken hauteskundeetan ordezkariak lortu zuten alderdi politikoak kontuan izanda, hiru ziren alkategai gisa bere burua aurkeztu zezaketenak: Agurtzane Solaberrieta Mesak EHBilduren izenean, Xabier Otxoa Muñozek EAJ-tik eta Petra Romerok PSE-EE-tik. Bozketa hasi aurretik, EAJ-ko eta PSE-ko alkategaiek bere burua hautagai gisa ez aurkeztea erabaki zuten. Bozkatu zutena beraz, Agurtzane Solaberrieta Mesaren hautagaitza izan zen. Aldeko bederatzi boto jaso zituen, EHBilduko udal ordezkari guztiena. PSE-EE eta EAJ-PNV-ko udal ordezkariak, aldiz, abstenitu egin ziren.

Emaizte erreparatuta, gehiago osoz hautatu zuten datozen lau urteotarako Usurbilgo alkate, EHBilduren zerrendaburu Agurtzane Solaberrieta Mesa. Gainerakoek antzera, zinegotzi gisa egin zuten moduan, alkate izendatu berritan bere kargua hartzeko zin egin behar izan zuen, aurrekoan adierazi zuen moduan, "legeak hala aginduta". Oraingoan ordea, "herritik eta herriarentzat arituko naizela" gaineratu zuen. Zin eginda, agintea irudikatzen duen zumea jaso zuen Solaberrietak, adin mahaiko lehen-dakari eta talde kide zuen Joxe Mari Lizasoren eskutik. Hunkituta eskuratu zuen bigarren, hurrengo lau urteotarako zumea EHBilduren hautagaiak. Zumea goratuz agurtu zituen aurrean txalotzen zituen guztiak.

# Orain arte egindako bidean sakontzeko asmoa

"Umiltasunez eta inolako harrokeriarik gabe jardungo dugu", iragarri zuen alkate hautatu berriak kargu hartze ekitaldian.

"Sinestuta gaude beste mundu bat posible ez ezik, behar beharrezkoa dugula, jendeak bizitza bizigarriak eta zoriontsuak izateko eskubidea duela, eta ez dugula etsiko Euskal Herria aske, euskaldun, feminista eta ezkerrekoa lortu arte". Norabide horretan lan egiten segitzeko asmoa agertu zuen larunbat eguerdian hautatu berria zuten Agurtzane Solaberrieta Mesa Usurbilgo alkateak. Hunkituta, irribartsu eta esker onez jaso zuen aginte zumea. Esker ona adierazi zien etxeko eta lagunei, baita EH-Bilduren hautagaitza babestu zuten herritarrei. Egindako lanaren aitortzatat jo zituen izandako emaitzen aurrean "lan eginez itzuliko dugu jaso dugun babes guztia" adierazi zien. Kritiko agertu zen ordea abstentzioa 5,5 puntu gehitu ostean. "Horrek autokritika eskatzen digu", adierazi zuen.

## Udalbatzaren gatzetasuna

Udalbatza osatzen duten hamahiru ordezkari bederatzik kide berriak dira. "Udalbatza honek ezer islatzen badu gaz-

tetasuna da", alkatearen esanetan. Pozgarritzat jo zuen "hainbeste gazte etorkizuneko erronkei aurre egiteko proposamenak lantzen ikustea". Herritarrek ere hala sentitu dutelakoan adierazi zenez, "ondo merezita duzue aurtengo Santixabeletako txupinazoa botatzeko ohorea izatea. Aupa zuek!".

## Lidergo konpartituen beharra

Eskuratu berri zuen argazkiko zumeak sustatu nahi duten aginte eredu deskribatzen duela esan zuen: "apala eta malguta, moldagarria, inguruaren beharretara eta garai berrietara moldatzen dakiena, baina aldi berean sendoa eta trinkoa". Zumea udal gobernu taldearena soilik ez, oposizioarena ere badela gaineratu zuen, "udalbatza osatzen dugun guztiona, herritarrek eman diguten ardura, ardura konpartitua delako eta aginte eta lidergo konpartituak behar ditugulako, egungo gizarteak dituen erronka konplexuei erantzun badiogu". Era-



Agurtzane Solaberrieta Mesa, zumea eskuartean duela. NOAUA

bakigarritzat jo zuen hamarkada honetan "espero den fenomeno globalen larriagotzearen aurrean, epe ertainean erresilientzia irabazteko bideak gaurdanik bilatzea" ezinbestekoa iruditzen zaio alkate hautatu berriari. "Horretan ari gara hain juxtu, azken urteotan Usurbilen. Erronka handiei tokikotik erantzuten, horri aurre egiteko proiektu eraldatzaile eta

aitzindariak diseinatzen eta martxan jartzen".

## Udal funtzionamendu berria

Orain arte bezala, herritarrekin batera lan egiteko beharra azpimarratu zuen "politika publikoak eraginkorragoak direlako, eta guztion ekarpenari esker, herri kohesionatuagoa garelako". Datozen erronkei aurre hartzeko, "Udalaren barne funtzionamendu berri batekin batera, gizarte erronken baitako udal antolaketa eta horiei elkarlan publiko komunitariotik erantzutea ahalbideetako duen lankidetzazko gobernantza gorpuztea" ezinbestekoa deritzo Agurtzane Solaberrieta Mesak.

## "LAN EGINEZ ITZULIKO DUGU JASO DUGUN BABES GUZTIA"

## Hamahirutik bederatzik, udal ordezkari berriak

Datozen lau urteetarako, 2027ra arte osatu duten udalbatzako kide gehienak berriak izango dira, hamahirutik bederatzik. Segidan duzue zerrenda osoa. Bestalde, udal barruko antolaketa eguneratu eta martxan jartzeko hurrengo osoko bilkura ekainaren 27an

egin dute. Hitzordu horretan egingo da hain zuzen, datozen uztailaren 23ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan hauteslekuetan lan egitea egokituko zaien herritarren hautaketa, zozketa bidez. Guztia, eraberritu egin duten udalbatza aretoan

izango da. Gunea itxuraz berritzeaz gain, etorkizuneko osoko bilkurak telematikoki eta streaming bidez zuzenean eskaintzeko prestatu dute.

### 2023-27 legealdia

#### EHBildu, 9 ordezkari

- 1-Agurtzane Solaberrieta Mesa.
- 2-Jon Mikel Azpiazu Zubeldia.
- 3-Ainhoa Arrozpide Landa.
- 4-Xabat Beloki Segurola.
- 5-Iratxe Begiristain Otegi.

- 6-Xabier Aranburu Leiva.
- 7-Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.
- 8-Oskar Santamaria Pikabea.
- 9-Maialen Iñarra Arregi.

#### EAJ-PNV, 3 ordezkari

- 1-Xabier Otxoa Muñoz.
- 2-Ivan Iriondo Axpe.
- 3-Josune Urkola Larrarte.

#### PSE-EE, ordezkari bat

- 1-Petra Romero Pozo.

# Bide itxiera, Pikaolatik Kalezarko sarreraraino

Ekainaren 19tik 23ra, Matia zaintzadun etxebizitzaren auzune pareko errepidea asfaltatzeko lanak egingo dira.

Ekainaren 19tik 23ra, Matiak Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune pareko errepidea asfaltatzeko lanak egingo dituela berri eman du Usurbilgo Udalak, Pikaolako bidegurutzetik Kalezarko sarreraraino. "Lanak egin bitartean ezingo da bertatik pasatu, ez autoz ez oinez", ohartarazi dute. Hala ere, lanak iragarritakoa baino lehen, San Juanak hasi aurretik amaitzea aurreikusten dute. "Kalezarren ospatzen diren San Juan jaien bezpera izanik, hilaren 23a baino lehen amaitzeko eskatu die Udalak".



Lanak irau bitartean ezingo da bertatik pasa, ez autoz ez oinez.

Lanon aurretik, auzunearen kaleko eremuak aparkalekuak ere asfaltatu dituzte. "60 aparkaleku inguru sortuko dira auzunean, erabiltzaileei bisi-tan joaten direnentzat zein herritarrentzat; lurrazpiko aparkaleku bat ere izango du zaintzadun auzuneak, kasu horretan, bertako langile eta bisitariarentzako", Usurbilgo Udaletik azaldu dutenez.

## Tourraren eragina

Usurbilgo jaietan, Frantziako Tourra inguruotatik igaroko da. Aurten lehen hiru etapak Hego Euskal Herriatik abiatuko dira. Haietako bik uztailaren 2koak eta 3koak udalerrri hauen, baina Usurbil inguruak zeharkatuko ditu. Etapa hauen zeharkaldia dela eta, ordu askotako bide mozketak izango dira eta garraio zerbitzuetan ere eragingo du. Adi, beraz. Informazio gehiago, letour.euskadi.eus atarian jaso dezakezue.

## Euskarako eta aisialdiko dirulaguntzak eskatzeko aukera

Uztailaren 7ra arte bideratu ahalko dira eskabideak usurbil.eus web orrialdearen bidez edota udal erregistroan. Deialdia ikasturte honetan euskara ikasten aritu edota aisialdiko begirale edo zuzendari ikastarora egin dutenei zuzendua dago.

Euskarako dirulaguntza deialdiari dagokionean, matrikula kostuaren %100a bere gain hartzen du Udalak, 600 euroko mugarekin.

Aisialdiko dirulaguntza le-roari dagokionean, matrikularen %50a diruz lagunduko du Udalak, gehienez 250 euroekin.

Informazio gehiago ekainaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.




Chillida-Lekun egin zen uztza berriaren aurkezpena. EUSKAL SAGARDOA.

## "Izaera handiko sagardoak dira eta oso lurrintsuak"

Euskal Sagardoa osatzen duten Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 50 sagardogileen 80 sagardo aurkeztu zituzten aurreko astean, Chillida-Lekun egintako ekitaldian.

Uztza txikia izan da kopuruz 2022koa, baina izaera eta kalitate onekoa. Guztira, 2 milioi

kilo bildu dira eta 1,2 milioi litro Euskal Sagardo egin ahal izan dira. Orokorrean izaera eta gorputz handiko sagardoak dira "baina sagardotegi eta sagardo bakoitzak ditu bere berezitasunak", Euskal Sagardoaren sustatzaileek aditzera eman dutenez.



Sari banaketa aurreko astean egin zen. Eskubikoa da Ane Ibarгойen. ELHUYAR

## Ane Ibarгойen Alvarez, On Zientzia bideo-lehiaketan saritua

Elhuyarrek eta Donostia International Physics Centerrek (DIPC), ETB-kastero eskaintzen duen Teknopolis saioaren baitan On Zientzia izeneko bideo-lehiaketa antolatzen dute. Txapelketaren helburua, zientzia eta teknologiaren dibulgazioa sustatuko duten "bideo

laburrak eta originalak ekoiztea eta hedatzea" da.

Sarituen artean da Ane Ibarгойen Alvarez usurbildar arkitektoa. 'Mina edo pikantea? Pikante edo mina?' ikus-entzunezkoarekin euskarazko bideo onenaren saria jaso du, eta 2.000 euro.



# Elkartasun marka hautsi zuen 3. Uxue Trail lasterketak



Uxue Trail lasterketak 595 partaide erakarri zituen. NOAUA

"Gaur garailerik bada, herri elkartasuna izan da". NOAUA

Elkartasun marea berdeak hartu zuen herria ekainaren 18an, 595 partaide erakarri zituen 3. Uxue Trail lasterketari esker. Aurreko edizioetako elkartasun marka hautsi du aurtengoak. 114 lagunek parte hartu zuten 20 kilometroko Uxue Trail Luzean, 266 lagunek 11,5 kilometroko Uxue

Trail Motzean eta 215 lagunek 5,5 kilometroko Uxue Paseoan. Tartean ziren noski, hainbat herrikide. Rosa Uribe Navarrok, Irati Larrañaga Matxainek eta Beñat Bereziartua Urretabizkaiak lehen hiru postuetan amaitu zuten Andatzako itzulia. Saillkapenak, kronoak.com atarian ikus ditzakezue.

## Uxuen Lagunak

Antolatzaileek biziki eskertu zuten, Uxue Martin herrikideak duen "Phelan-McDermid" izeneko sindromea ezagutarazi eta ikerketarako laguntza biltzea xede duen proba hau egitea ahalbidetu eta parte hartu duten guztiak. "Gaur garailerik bada, hori

elkartasuna da, herri elkartasuna", zioen Usurbilgo alkateak. Nobedaderik iragarri zuten; "Aurten boluntarioz osatutako talde batek Uxue Lagunak Elkartea sortu zuten, bide honetan aurrera egin eta ikerketarako dirua biltzeko ekitaldiak antolatzeko".



# Material eta webgune berriak, jaiotzear

Buruntzaldeko udaletako Euskara zerbitzuek datorren ikasturtea hasterako jarriko dute herritarren eskura haur jaioberriak dituzten familientzako material berritua. Papera ez den kanalak erabiltzeko apustua ere egingo dute, 'euskara.buruntzaldea.eus' webgunea berrituta

## TXINTXARRI ESKUALDEA

Buruntzaldeko sei udalek makina bat urte daramatzate jaioberrien familiei hainbat material bidaltzen: zorion gutuna, hizkuntzari buruzko aholkuak biltzen zituen Etxeak du giltza, ibilgailuan jartzeko pegatina eta abestien CD bat. Azken urteetan hori guztia izan da sendiekin partekatu izan dutena. "Gogo onez jaso izan dute, zalantzarik gabe, baina urteak aurrera doaz eta aldatu egin da gure gizartea; bestelakoak dira pentsaerak eta ohiturak", adierazi dute. Horren aurrean,

2022. urtearen hasieran material hori guztia berritzeari ekin zioten, "ilusio handiz", eta dagoeneko badute esku artean lan horren emaitza, laster herritarren esku jarriko dutena; 2023-2024 ikasturtea hasten denerako, hain zuzen. Aurre-rapen moduan erabili ditugu bi orri hauek janzten dituzten irudi eta ilustrazioak.

## Bi erronka nagusi

Materiala berritzeko garaian bi erronkarekin topatu ziren eskualdeko udalak: alde batetik, gure herrietako biztanleria al-

datzen ari denez, gero eta gehiago dira kanpotik etortzen direnak, euskara badela ere ez dakitenak; bestetik, papera gero eta gutxiago erabiltzen denez komunikazioan, bestelako kanalak erabili behar dira. Lehenengoari dagokionez, keinu berezia egin diete gure artera etorritako horiei hainbat hizkuntzatan zoriontzerakoan, eta umeekin egunerokoan erabiltzen diren esaerak modu atseginean eskainiz. Bigarrenaren bueltan, euskara.buruntzaldea.eus webgunea berritzen ari dira, eta QR kodeen bidez eskura-

garri ipini dituzte paperean sorturiko materiala eta atari digital horretako bestelako euskarriak: bideoak, audioak...

Bideoek "balio berezia" dutela nabarmendu dute, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilgo haur eskolen laguntza izan baitute horiek ekoizteko. "Bereziki eskertu nahi diegu egingadako ahalegina eta lana".

Egitasmoaren helburua da familiak ere hizkuntzakikasteko prozesuaren parte egitea, bide-lagun izan behar baitute haurrek egingo duten bidean. Norabide horretan, hizkuntza ongi eskuratzeko baldintza egokiak ematea funtsezkoa da, bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzeko gai izango badira.

**Haurtxoarekin**  
**JOLASTEN**  
**ABESTEN**  
**ZENBATZEN**

**JOLASTAK**

**ABESTIAK**

**ESAERAK**

**ONGI ETORRI  
JAIOBERRI!**

Zorionak guraso, eta ongi  
etorri etxeko txikiari  
Buruntzaldeko Euskara  
Zerbitzuen izenean!

**zorionak!**

**Saiatu euskaraz**



## Hizkuntzak ikasten laguntzeko ardura, familiaena ere bai

Haurrek eskolan euskaraz ikasiko duten arren, familiek ere umeen bidelagun izan behar dute hizkuntzak eskuratzeko prozesuan, horretarako baldintza aproposak eskainiz. Gizarte eleanitz batean bizi gara egun, eta gure seme-alabak halakoak izango dira. Onuragarria izango da haientzat edozein egoeratan bi hizkuntza ofizialetan eroso komunikatzea



### Guraso euskalduna(k) bazara/bazarete

- Familiako kideek beren artean euskaraz egiten badute, haurra txikitatik ohartuko da tresna baliagarria dela eguneroko bizitzarako. Euskaraz egin zuen artean, eta nola ez, umeekin ere bai!
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen: zaintzaile euskalduna hautatu, euskarazko aisialdiaren alde egin...
- Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko eta abarretan euskaraz presentzia izatea.
- Gertuko nahiz ezezagun, lehen hitza euskaraz egin beti.

### Bikote mistoak

- Komeni da gurasoetako bakoitzak haurrari dakien hizkuntzan egitea, umea txikitatik elebiduna izateko. Guraso euskaldunak euskaraz egitea garrantzitsua da, eta ez dakienak hizkuntza horrekiko jarrera ona eta interesa izatea.
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen.
- Garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko eta abarretan euskaraz presentzia izatea.
- Inguruan euskal hiztunak badituzue, eskatu haurri hala egiteko, erreferente gehiago izan ditzan.
- Gertuko nahiz ezezagun, lehen hitza euskaraz egin beti.

### Euskaraz ulertzen baduzu(e)

- Zuen ama hizkuntza ez bada, zaindu etxekoa eta saiatu ahalik eta eredu osoena eskaintzen. Garrantzitsua da hizkuntzarekiko harreman ona eta jarrera positiboa igortzea.
- Euskara ahal duzuen guztia erabili, ondo dakizkizuen esaldi eta formulak erabilita.
- Saiatu beste arlo guztietan ere euskarari lekua ematen.
- Haurraren jaiotza motibazio ezin hobea izan daiteke euskara ikasten jarraitzeko eta umeari laguntzeko. Animatu eta eman izena euskaltegian!
- Eskatu zuen ingurukoei eta beste guraso euskaldunei zuei euskaraz egiteko.

### Euskara ez baduzu(e) ezagutzen

- Oso garrantzitsua da jarrera ona izatea; ama hizkuntza zaintzeaz gain, beste batzuk ikasteko interesa erakustea.
  - Funtsezkoa da euskara alor guztietan presente egotea: zaintzaileak, aisialdia...
  - Haurraren jaiotza motibazio ezin hobea izan daiteke euskara ikasten hasteko eta umeari laguntzeko. Animatu eta eman izena euskaltegian!
  - Euskarazko irakaskuntza hautatuz gero, bermatuko duzue haurrak euskararen eta gaztelaniaren ezagutza maila antzekoa izatea.
- \*Oharra: atal honetako informazioa gaztelaniaz jasoko dute gurasoek eskuorrian.*

<https://euskara.buruntzaldea.eus/>



NOAUA

## Ikasturte amaierako kontzertuak

Ikasturte amaiera iritsi da Zumarte Musika Eskolara ere. Joan zen asteburuan, ikasle eta irakasleen kontzertuez gozatzeko aukera izan zen. Ostiralean, musika eskolaren aurrean kontzertu txikiak eskaini zituzten formatu txikiko taldeek. Larunbat arratsaldean, kalejira eta kontzertu gehiago izan ziren.



NOAUA

## Amaitu da Zubietako UdaFest zikloa

UdaFest zikloaren baitan, ostiralean Antzerki Eguna ospatu zuten Zubietan. Eskola Txikiko ikasleek antzerki emanaldiak egin zituzten guraso eta lagunen aurrean. Ekitaldi honekin amaitu da UdaFest zikloa, udako oporrak hartu aurreko egitaraua.



NOAUA

## Zumartekoak, kalejiran

Kalejira eder batekin hasi zuten Zumarteko kideek larunbatean kontzertu arratsalde oparoa. Trikitixa, pandero, haize eta perkusio ikasleen eskutik euri zaparrada ikusgarriaren aurretik egindako kalejira izan zen frontoitik Artzabal ingurura eta buelta.



NOAUA

## Xabier Peñalverren liburu aurkezpena

Xabier Peñalverrek *Revolución, resistencia y memoria-Patrimonio de la humanidad* (Txalaparta) izeneko liburuaren aurkezpena egin zuen Aitzaga elkartearen aurreko ostiralean. Iraultzak eta memoria izan ziren aurkezpen hitzaldiaren muin nagusiak.



Sexu erasoaren aurkako jaietako protokoloa aurkeztu zuten iragan ostiralean. NOAUA!

# Eraso sexistei aurre egiteko protokoloa

"Norberak erabakiz eta guztiok gozatuz, sor ditzagun festak guztiontzako espazio seguru eta gozamen iturri". Eskari nagusi honen bueltan aurkeztu dute jaietarako landu duten sexu erasoaren aurkako protokoloa Usurbilgo Udalak, Kafe Tertuliak eta Xauxar Txosna Batzordeak.

Izan ere, argi denez, "festa giroa ez da berdina izaten guztiontzat". Izatez, "emakumeek festak askatasunez eta berdintasunez gozatu behar dituzte, sexu erasoaren beldur izan gabe, seguru sentituta eta eurenak ere badiren tokiak edo espazioak ukatu gabe". Bestelakoa da ordea, errealitatea. "Neska gazteek aitortzen dute oraindik ere jaiak eta gauak ez direla eurenak". Ohartarazi zuten ordea, "dena ez da libre", baina "udan, festa eremuan, emakumeen kontra ematen diren jazarpenak ugaritu egiten dira, hitzezko abusuak, ukituak, bortxaketak... Baina tamalez, hainbat jarrera festa giro horretan normalizatzen hartzen ditugu oraindik ere. Eta beraz, ez ditugu erasotzat hartzen, are

gutxiago jai eta festa giroetako testuinguruetan, erlatibizatu egiten ditugu garrantzia kenduz".

Egoera horren aurrean, argi adierazi dute egunotan aipatu eragileek Mikel Laboa plazan egindako agerraldian; "gauak eta kaleak geureak direlako eta festak eta egunerokoa ez ditugulako beldurrez bizi nahi, aske baizik. Aske izan nahi dugu, nahi dugunean nahi dugun bezala ibiltzeko. Ez dugu ausartak izan nahi, ausartak bagara ere, ez beti". Geroz eta kontzientziatuagoa dago gizartea baina oraindik zer eginik badela azpimarratu dute. Horregatik, irudikatu duten batasuna ezinbestekotzat jo dute "sexu eraso eta indarkeria matxistaren kontrako borrokan".

## Protokoloa, gida eta puntu morea

Badatozen jaietara begira, hiru ekimen iragarri dituzte argazkiko kideek ordezkatzeko dituzten eragileek; batetik, sexu erasoaren aurkako gida banatu dute. Bigarrenik, gerta daitezkeen eraso matxistei aurre egiteko eskuhartze protokolo bat ere landu dute. Gai honen inguruko lanketa egitekoak dira bai tabernariekin baita txosnen eremuan lan egingo dutenekin ere. Batean zein bestean gertatzen diren erasoaren aurrean, bai lanean dau-

## PUNTU MOREA JARRIKO DUTE JAIETAKO BI EGUNETAN

denek baita barraz bestalde jaietara joaten ari diren herritarrek nola jokatu zehazten duten kartelak jarriko dituzte baita. Azkenik, ekimen hauei, Sagardo Egunean eta baita iazko jaietan ere Emagin elkarteak jarritako puntu morea batu behar zaie. Iragan asteko agerraldian iragarri zutenek, ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean kokatuko dute errealitate honi ikusgarritasuna eman, gaiaz sentsibilizatu eta "sexu erasoaren bat jasaten bada, toki seguru eta babesa eskaintzeko".

### "Soilik bai da bai"

Protokoloari dagokionean, Usurbilgo aisialdi eta jai eremuan gerta daitezkeen eraso matxistetan nola eskuhartu zehazten du. "Esaterako, norbaitek erasotua izan dela esan eta laguntza eskatzen baduzu edo erasoaren baten berri baduzu nola jokatu zehazten du. Nagusiki, ez ezazu epaitu, ez ezazu bakarrik utzi eta ez itzazu erabakiak hartu galdetu gabe. Eraso matxista txosna eremuan edo taberna batean ematen bada, zer egin zehazten du". Horrez gain, "gidak indarkeria matxista zer den definitzen du eta ikuspegia zabaldu eta emakumeek eta LGTBQ+ kolektibokoek jasaten duten indarkeria ere barnebiltzen da". Horrekin batera, "sexu eraso zer den eta zer onarpen sexuala argiki jasotzen du. Eta mezua argia da, soilik bai da bai. Eraso matxistaren bat jasotzen bada, egin beharrekoaren inguruko azalpenak ematen dira".

Horrez gain, familiek duten ardura nabarmenduz, gurasoek seme-alabei igorri beharreko mezuak biltzen ditu. Besteak beste, alabei ezetz esaten erakustea, beldurrik gabeko mezuak helarazi eta erasotua izanez gero erruduntzat ez jotzea. Semeentzako mezuak ere jasotzen ditu; "lagun dezakete jaiak denontzako espazio seguru bihurtzen".

# "Erdi-arrastaka hasita nengoen eta erretiroa hartzea erabaki dut"

ALEX UDABE ARRAUNLARIA

Kantauri itsasoko urek ondo baino hobeto ezagutzen dute Alex Udabe, urteak berdez jantzita egin baititu Hondarribiaren Ama Guadalupekoa ontzian. Erretiroa hartu berri du familia lehenesteko.

**Arraunean urte asko egin dituzu. Hain kirol gogorra izanik, erretiroa gertu ikusten duzu ala oraindik ez duzu horrelakorik buruan?**

Aurtengoz behintzat urtebeteko atsedena hartuko dut. Nik uste betirako izango dela, baina inoiz ez dago esaterik erabat ziur. Momentuz, goi-mailan aurten urrunduko egingo naiz eta hortik aurrerakoak ikusiko ditugu. Bizitzak buelta asko ematen ditu eta ezin da inoiz jakin non amaituko dugun. Gozaten ari nintzen, baina erdi-arrastaka hasita nengoen eta erretiroa hartzea erabaki dut. Denbora asko eskaini behar zaio kirolari eta beste zeregin batzuk ditut orain. Arrauna normalean behin utziz gero, zaila izaten da berriz atzera itzultzea maila handia eskatzen duelako, goi-mailak behintzat. Erretiro definitiboa izango delakoan nago.

**Kontxako Banderak irabazi dituzu, Eusko Label liga ere irabazitakoa zara. Zure kirol jardueran, irabazi daitekeen guztia irabazi duzu. Zer geratzen zaizu egiteko?**

Ezer ez. Izugarritzko zortea izan dut Hondarribian irabazteko geneukan guztia irabazi dugulako. Oso talde ona izan dut eta nik ere maila ematea lortu dut. Txapelketa ofizial guztiak gutxienez behin irabazi ditut eta bandera mordo bat ere eramane ditugu etxera. Banderak



Denbora honetan guztian, "bandera mordo bat eman ditugu etxera". NOAUA

raren bat edo beste izango da lortu ez dudana, baina ez zait arantza bat bera ere geratu. Oso asetuta nago lortu eta egin dudanez guztiarekin. Erretiratzeko ere oso ondo nago, baina jarraitu ere horregatik egin nahi dut, gurpil hori gera ez dadin. Bi baja izan gara aurten, beste talde batera joan delako, baina taldea oso ondo utzi dugu eta horrek ere pena eman dit jarraipena ederra izango zela-koan.

**Arraun proba guztiak ez dira berdinak. Zein da gustukoen duzuna?**

Berezitasuna beti Kontxako estropadak izaten du. Ni beti 'antiKontxa' izan naiz. Kalean

**"TALDEA OSO ONDO DAGO. JARRAI PEN EDERRA IZANGO DU UDA HONETAN"**

jendeak ikustean eta arraunlaria izateagatik ezagutzean beti galdera bera egiten dit: zenbat Kontxako Bandera dauzkazu? Izugarritzko amorrua ematen dit arraunlari bat Kontxako Bandera kopuruegatik baloratze horrek. Nik oso arraunlari onak ezagutzen ditut, ni baino askoz ere hobek eta Kontxako Banderarik irabazi gabeak. Min egiten dit jendeak hori bakarrik baloratzeak. Orain Liga indarra hartzen ari da eta inoiz Kontxako Banderaren maila izango ez badu ere, berdintzerako joera hartzen ari da. Liga jokoan dagoenean ere estropada guztiak bereziak dira eta bakoitzak bere xarma du.

**Arrauna oso maskulinoa izan da urtetan. Badirudi gauzak aldatzen ari direla, ezta? Ze inpresio hartu duzu zuek?**

Salto handia ematen ari da zentzu askotan. Lan asko dago egiteko oraindik gizartean, antolakuntzan eta baita emakume arraunlarietan ere. Erabat berdintasunaren alde nago, baina emakumeek beren kirolari indarra eman beharra daukate. Kirol ikusienak ikusgarrienak dira, lehia bizia egoten dena eta borroka latza. Urrats handiak ematen ari dira neskek eta bandera asko zentesima gutxi batzuetan baita erabaki dira. Hori da ikusgarritasuna izatea. Lehen talde on bat zegoen eta gainontzekoak zetozen gero 30 segundura, 40ra eta hurrengoak minutu eta gehiagora. Ez zeukan emozio berezirik zentzu horretan, baina orain asko indartu dira taldeak eta ikusgarria da hori ikustea. Jende, eta gizon askok esan didate nesken estropadak ikusten gehiago gozaten dutela gizonezkoenak ikusita baino. Seinale ona da hori, gauzak ondo egiten ari garen seinale. Lanean jarrai dezatela eta ondorengoei erakuts diezaie la lan gogorrak fruituak ematen dituela. Egia da neska arraunlari gutxi dagoela

→ oraindik, eta beraz, traineru bakoitzean 4-5 arraunlari on daude eta gainontze-koek ez daukate horrenbeste mailarik. Horrek ikusgarritasun hori zertxobait murrizten du.

Gizonok taldean 20 bat izaten gara eta bakoitzak bere postua borrokatu beharra izaten du punta-puntako taldeetan. Uste dut neskek ere horretara iritsi behar dutela eta oreka hori aurkitu, baina saltoa izugarria izan da.

**Zu aritu zaren mailan aritzeko, gaitasun fisiko bereziak behar dira. Baina prestaketa lana ere oso inportantea izango da. Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek? Eta bat aukeratu beharko bazenu, nor nabarmenduko zenuke?**

Ni hiru elkartetan ibili naiz. Lehen urratsak San Pedron egin nituen, urtebete Kaikun ondoren, eta azken 8 urteak Hondarribian. Ez ditut entrenatzaile asko ere izan, baina bakoitzak zerbait erakutsi dit. San Pedron hasi nintzanean, lehen urtean, entrenatzaileek ez zuen entrenatzailetik asko, baina gauza batzuk erakutsi zizkidan. Ondoren, beste entrenatzaile bat izan genuen oso gogorra eta harek indartu egin ninduen eta fisikoki sufritzen ikasi nuen. Gero, Kortarekin urtebete egitea tokatu zitzaidan. Haren pailazokeria batzuk gorabehera zerbait ikasi nuen, ez asko, baina zerbait bai. Gehien mimatatu nauena eta harreman onena eta sakonena izan dudana Hondarribiako Mikel Orbañanos izan da. Elkarri gauza asko erakutsi dizkiogu eta heldutasunetik elkar elikatu dugu. Ez da niretzat entrenatzaile onena bandera gehien berarekin irabazi ditudalako, baizik eta gainontzekoan ere izugarri eman didalako. Gainontze-koek ere erakutsi didate, bakoitzak bere neurrian eta hori ere ematen diot bakoitzari.



"Ziur nago arraunari lotuta egongo naizela modu batean edo bestean". NOAUA

**Arraunean gutxi izango dira profesionalak. Zure kasuan, zertan ari zara lanean?**

Profesionaltan urteak egin ditut eta zerbait irabazten da, baina momenturako. Futbolarekin konparatuta ez dauka batere zerikusirik, tira, agian ez genuke ezer futbolarekin alderatu behar ere. Profesional izateak nire ustez, erretiroa hartu arte horretatik bizitzeko aukera eman behar luke eta horrek bizitzeko tarte bat ere ematea urte batzuk gehiagorako. Oso kirol gutxi daude hori eskaintzen dutenak. Kasu gehienetan, ibilbide profesionala bukatu eta segituan lan bila hasi beharra dago. Arraunean, urte batzuetan diru dezente mugitu da Bizkaian eta Kantabria aldean. Hamarkada oso ona izan zuten 1995-2005 artean Kantabrian, baina segituan dena pikutara joan zen. Ondoren, beste olatu bat izan zen Bizkaian eta Gipuzkoara helduko zen esperantza neukan, baina ez zen hala izan inoiz. Orain Urdaibai da inork baino botere ekonomiko gehiago duena eta arraunlariak dirua ondo irabazten dute.

**"ENTRENATZAILEEN ARTEAN, HARREMAN ONENA MIKEL ORBAÑANOSEKIN IZAN DUT"**

Oso zaila da profesionalki bizitzea, nahiz eta guk ere dirua irabazi dugun diru-laguntzetatik, elkartetik eta irabazitako sarietatik. Bidaia bat egiteko edo kapritxo bat emateko aukera ematen du, baina horretatik bizitzeko ez. Laguntza bat da, ez soldata bat. Egiten dugunerako eta eskaintzen diogun denborarako ez dugu ezer irabazten.

**Eta etorkizunean, lehiaketaren lehen lerroa utzi eta gero, kirol munduari lotuta ikusten duzu zure burua? Entrenatzaile gisa akaso?**

Bai. Arrauna utzi dut bi haurren aita naizelako eta emaztea ere badaukat, eta haiei denbora eskaini behar zaie. Lehenetsunak jarri behar dira bizitzan eta nireak hauek dira orain. Bizitza erabat aldatu zait. 6-7 egunetan kirola egitetik ahal dudanean egitera pasa naiz eta hori oso gogorra egiten ari zait; aldaketa handia da. Arrauna printzipioz goi-mailan utzi egin dut eta kirola egin nahiko nuke familiak uzten didan bitarte horretan. Umeak heltzen

**"NEURE BURUA KIROLARI LOTUTA IKUSTEN DUT. ENTRENATZAILE LANETAN ARITUKO NINTZATEKE"**

doazen neurrian eta lasaiago nabilen neurrian kirola egin nahiko nuke. Neure burua kirolari lotuta ikusten dut. Entrenatzaile lanetan arituko nintzateke, adibidez, jendeak horretan ikusten naue-la esaten dit eta gustatzen zait ideia hori. Ez daukat ideia finkorik eta datorrenari helduko diot, baina ziur nago arraunari lotuta egongo naizela modu batean edo bestean.

## Laburrean

**Zenbaki bat:** 15.

**Kolore bat:** Berdea.

**Kirolari bat:** Aimar Zubeldia.

**Txapelketa bat:** Kontxako estropada.

**Film bat:** 'Un monstruo viene a verme'.

**Liburu bat:** Joan Mari Torrealdairen biografia irakurri nuen duela pare bat urte.

**Abesti bat:** 'Festarik festa' (Tapia eta Leturia).

**Sare sozial gustukoa?:** Instagram eta Facebook.

**Usurbilgo txoko bat:** Erroizpeko presa.

**Santixabelak ala Sagarido Eguna?** Sagarido Eguna.

**Oporretarako toki bat:** Asturias inguru.



Intxurre taldearen aurkako final handian, 16-10 emaitzarekin nagusitu ziren.

## Alejo anaiak, Gipuzkoako txapeldunak

Errendimenduko Udaberri Sariko finalak jokatu ziren aurreko asteburuan. Ekain eta Markel Alejo anaiak Intxurre taldekoei 16-10 irabazi ostean, Pagazpeko bikotea herrialdeko 2. mailako errendimenduko txapeldunak ditugu.

## Usurbilgo pilota txapelketak azken txanpan sartu dira

Egunotan jokaturiko finalerdien ondoren, jaietako egun nagusian, uztailearen 2an izango diren finalari begira da mende erdia bete duen Usurbilgo Pilota Txapelketa.

### Emaitzak

#### Kadeteak:

Alejo-Errasti 22  
Aburuza-Pagola 11

Izagirre-Oñate 17  
Perurena-Elola 22

#### Nagusiak:

Alberdi-Irazustabarrena 18  
Orbegozo-Albeniz 22

Amiano-Sorondo 5  
Olaizola-Aranguren 22

### Finalak

Uztaileak 2, igandea,  
17:00 Usurbilgo frontoian:

#### Kadeteak:

Alejo-Errasti (Pagazpe)  
Aburuza-Pagola (Añorga)

#### Nagusiak:

Orbegozo-Albeniz (Orio)  
Olaizola-Aranguren (Eple-Orereta)

Antolatzailea: Pagazpe pilota elkarte.



Eskubaloi Eskolako izen-emateak zabalik jarraitzen du. Argazkia, artxibokoa.

## Usurbil KE taldeko bazkideen batzarra larunbat honetan egingo da, Potxoenean

Larunbat honetan, ekainak 24, Usurbil KE eskubaloi taldeak bazkideen ohiko batzarra ospatuko du Potxoenean, goizeko 10:00etan hasita.

### Eskubaloi Eskola

LH5 eta LH6ko haurrek hartu ahalko dute parte Eskubaloi Eskolan.

Entrenamenduak astean behin izango dira, asteartean 18.30etik 20.00etara, eta

hilabetean partida bat edo bi.

Urteko kuota 50 eurokoa izango da. "Anai-arreba bat baino gehiago izanez gero, 25 euro ordaindu beharko ditu bigarren jokalaria eta ondorengoei".

Usurbil KE-ko kideek aditzera eman dutenez, izen-ematea ekainaren 30ean amaituko da. Estekahonen bitartez egin behar da: <https://labur.eus/hhPpV>

## Jon Mikel Elexpe eskubaloi jokalaria Euskal Selektzioaren deia jaso du

Euskal Eskubaloi Federazioak Euskal Selektzioaren entrenamenduak eta partidak iragarri ditu egunotarako. Hainbat taldeetako jokalaria deitu dituzte, tartean usurbildar bat; Usurbil K.E.-ko Jon Mikel Elexpe. Gasteizen, Zumarragan eta Elgoibarren jokatuko dituzte partidak asteburuan.

### Esther Arrojeria, beste urtebetez Bera Beran

2012ko urrian debutatu zuen Kalezarko jokalaria beste urtebetez liga irabazi eta Kopa eta Superkopako tituluak eskuratu dituen Donostiako

eskubaloi taldean jokatu du. Hamaika urte egingo ditu ohorezko mailan. 267 partida jokatu ditu elitean eta 798 gol sartu. Erronka berriekin ekingo dio 2023-24 denboraldiari; Europa Leagueko multzoen fasean sartzea, besteak beste.

### Andoni Iraola, Bournemouth taldeko entrenatzailea

2025. urtera arte arituko da Ingalaterrako taldea zuzentzen. Azken hiru urteotan, Rayo Vallecano entrenatzen aritu da. Aurretik, Mirandes eta Zibreko AEK Larnaca taldeko prestatzaile lanetan jardun zuen.



## MERKATU TXIKIA

## EREBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bitziteko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. 636 711 514.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Datorren ikasturteari begira haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabiltza. Egurdiko 12:00etatik 14:00tara astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz lanean aritzeko pertsona baten bila gabiltza. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. 695 783 202.

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? 680483164.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, Olarrondon. 626 686 036.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten espezialista. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinakoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

## BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkar-guz eskatu dezakezu: txokolatea, azenarior tarta, hiru esnekiak edo zuk aukeratzeko duzuna. Sare sozialan kuxkuxeatu: @deliciascreativasdey. 624356763 (Deynis)

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Ez dauka markarik. Pertsonalizatuta egindako bizikleta da eta egoera oso onean dago. Interesatuok hona deitu: 644 619 358.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## EGUNEZ

Osteguna, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 25	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 26	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astearte, 27	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 28	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 29	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 30	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 01	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 02	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURI ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## HILDAKOAK



**Domingo Elorza Muruaga**  
Ekainaren 13an  
hil zen, 85  
urterekin.

**Claudia Iraola Segurola**  
Ekainaren 16an  
hil zen, 80  
urterekin.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarteok; hiru bide dituzu NOAUaren bidez zoriortzeko:

## Internet eta papera

noaua.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://noaua.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta dagokion NOAUA astekarrian. Oharra: astelehen arratsaldetik aurrera iristen direnak hurrengo astean plazaratuko ditugu.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria/auzoa, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituz NOAUaren bulegora (Bordaberri 3, behe) edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 23

## KALEZAR Jaiak

San Juan bezperako ospakizunak.  
Egitaraua, aldameneko albistean.  
*Egun osoa, Kalezarren.*

USURBIL UEU Jakin  
Jardunaldiak

Gizarte mugimenduak hizpide  
izango dituzte aurtengo edizioan.  
*9:30 Artzabal baserrian.*

## LARUNBATA 24

USURBIL 'Usurbil Museo  
Irekia' bisita gidatua

Izen-ematea: 3 euro,  
650usurbilbizi.eus atarian.  
*12:00etan Sutegin.*

## KALEZAR Jaiak

San Juan Eguneko ospakizunak.  
Egitaraua, aldameneko albistean.  
*Egun osoa, Kalezarren.*

## IGANDEA 25

USURBIL 'Usurbil Museo  
Irekia' bisita gidatua

Izen-ematea: 3 euro,  
650usurbilbizi.eus atarian.  
*12:00etan Sutegin.*

## KALEZAR Jaiak

Umeen Eguneko ospakizunak.  
Egitaraua, aldameneko albistean.  
*Egun osoa, Kalezarren.*



Gaztelumendi anai bertsolariek girotuko dute Kalezarreko San Juan sua.

## San Juan jaiek bete-bete hartuko dute asteburua

Ekainak 23, ostirala:  
San Juan bezpera

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 17:30 Buruhandiak.
- 22:00 San Juan sua haur parkearen ondoan, bertsolariek girotuta.
- 23:00 Inguma eta Lehen Lerroa Oñatiko musika taldeak.
- Jarraian: Fan & Go.

Ekainak 24, larunbata:  
San Juan Eguna

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Toka jokoa eta hamai-ketakoak.
- Ondoren: Patata tortila lehia-keta.
- 16:00 Mus txapelketa (izen ematea 15:30ean itxiko da).

- 17:00 Buruhandien irteera.
- 18:00 Herriko dantzarien emanaldia.
- Jarraian: sardina eta sagardo dastaketa Saizar sagardote-giaren eskutik.
- 23:30 Bide Batez musika taldearekin dantzaldia.
- Jarraian: DJ Javi Hidalgo.

Ekainak 25, igandea:  
Umeen Eguna

- 10:00 Umeen Krosa.
- 11:30 Jolasak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 16:00 Tailerrak.
- Ondoren, buruhandien irteera.
- 18:30 Txokolatada.
- 19:00 Dj Gorkamendiren eskutik dantzaldia.

### Pelexen lanak Sutegin

Pelex eskultoreak eta margolariak 'Hotsez Hots 2.0' izeneko bilduma osatu du eta Sutegin duzue ikusgai. Igande honetan amaituko da erakusketa. Hauek izango dira asteburuko bisita-orduak:

- Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:00.
- Larunbatetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.
- Igandetan: 12:00-14:00.

### Bisita gidatuak

Bisita gidatuak Usurbilgo kultur ondarea ezagutzeko aukera aparta eskaintzen dute.

Larunbat zein igandean eguerditan eguerdiko 12:00etan abiatu ohi dira eta ordubeteko iraupena du ibilalditxoak. Hori bai, bisita gidatuak parte hartzeko aurretik eman behar da izena web orrialde honetan: 650usurbilbizi.eus/agenda

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
629 272 859 eta 943 36 13 80  
BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08

Ingeleseko klaseak haur eta helduentzat  
**LH3tik aurrera**



Bertako irakasleak • Matrikulatzea dohainik • **Online** saioak urruti bizi direnentzat  
Talde murriztuak • Cambridge azterketen prestakuntza • High level “use your English”



**Zatoz lagunekin ondo pasatuz ikastera!**  
Taldeak irekiak daude datorren kurtsorako

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

## Euskara errefortzu klaseak: Hezitzaile eta irakasle bila gabiltza!

Udalak haur eta nerabeentzako euskara errefortzu klaseak eskainiko ditu 2023-24 ikasturtean, herriko hiru ikastetxeekin eta Ttakun Kultur Elkartearekin elkarlanean.

**Kontuan hartuko dugu:**  
usurbildarra izatea, ikasketak, esperientzia eta euskara gaitasuna.

**Curriculumak bidaltzeko:** zerbitzuak@ttakun.eus

**Epea:** uztailaren 2a baino lehen.



# Udarregi

## IKASTOLA



On do paga sant☆xabeΛak!!!

# ☆xabeΛe!

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)